

Euskal Herria gaur bi estatu inperialistaren menpe, 3 eremu administratibotan zatiturik dute. Euskal Herrian gaur okupaziopeko erregimena pairatzen segitzen dugu. Ez Nafarroa Garaian eta ez beste euskal lurraldeetan ez da inolako erregimen aldaketarik eman. Espainiar eta frantziar erregimen kapitalisten menperakuntza pairatzen segitzen dugu. Aste honetan Altsasukoekin gertatu dena horren ondorio eta adibide lazgarria da.

Oraindik ez dugu askatasuna erdietsi eta areago askapen borroka krisi batean aurkitzen da. Batzuek diotenaren kontra hemen arazoa ez da demokraziaren kalitate eskasa, inposaketa eta okupazio inperialista baizik. Hortaz, asimilazioari bidea zabaltzen dioten irakurketen aitzinean, aurrera egiteko duintasunaren eta erresistentziaren beharra azpimarratu nahi dugu toki hain esanguratsu honetan.

Hemen, Amaiurko gazteluan, duela 5 mende, 1522an, gotortu ziren konkistatzaileei aurre egin zieten azken nafar gerlariak. 200 nafar inguruk eutsi zioten hainbat egunez milaka eta milaka inbasoreren setioari. Ondotik konkistatzaileek hainbat preso erail eta gaztelua suntsitu zuten.

Eta hemen Amaiurko gaztelua zegoen tokian eraikitako oroitarriaren inguruan, izan dira urteetan zehar zabalduak Euskal Herriaren askatasunaren alde bizia emandako hainbat militanteren errautsak. Horrela, oroitarri handi eta ezagunaren ondoan, magal batean badaude beste bi oroitarri ttiki eta xume. Bata Josu Muguruzari eskainitakoa da eta bestea Mikel Castillori eskainitakoa.

Sinbolikoki hain esanguratsua den toki honetan gure herriaren independentzia ozen aldarrikatuko dugu.